



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

GIZARTE KONTSEILUAREN NAHITAEZKO TXOSTENA, 2020KO UDAL-AURREKONTUEN PROIEKTUARI BURUZKOA

SARRERA

Indarrean den Gasteizko Udalaren Herritarren Parte-hartzerako Araudi Organikoak honako hau jasotzen du, 78. artikuluan, Udalerriko Gizarte Kontseiluaren funtzioen artean:

«*Urteko aurrekontu-proiektuari buruzko nahitaezko txostena egitea*».

Azaroaren 12an, Gobernu Taldeak 2020. urterako udal-aurrekontuen proiektua aurkeztu zuen Ogasun Batzordean, eta jendaurrean jarri zuen azaroaren 18an.

Aurten, hauteskunde-aldian zehar partaidetza-organoei dei egiteko ezintasuna dela-eta, ezin izan dira helarazi, aurreko urtean Gizarte Kontseilutik planteatu zen moduan, elkarguneen eta auzoguneen premia eta lehentasunen proposamenak, Gobernu Taldeak aurrekontu-proiektua egin aurretik. Horregatik, oso denbora-tarte laburrean egin behar izan dira partaidetza-organoen bilerak, 2020ko aurrekontu-proiektua eztabaidatu ahal izateko. Horrela, azaroaren 19tik 28ra zenbait eztabaida-bilera egin dira elkarguneetan, baita auzogune guztien saio bateratu bat ere. Guztira, udal-teknikariak eta ordezkari politikoak kontuan hartu gabe, 66 erakundetako 105 pertsonak hartu dute parte (% 56 gizonak eta % 44 emakumeak), baita beste 10 pertsonak ere, beren kontura.

2019ko abenduaren 2ko lan-saioan, Gizarte Kontseiluak nahitaezko txosten hau egitea erabaki zuen, aurreko eztabaida-saioetatik ateratako ondorioak eta proposamenak oinarritzat hartuta.



TXOSTENA

1. GIZARTE KONTSEILUAREN NAHITAEZKO TXOSTENA IZAPIDETZEKO PROZESUA

Prozesuaren metodologia orokorra

Gizarte Kontseilua aurreko urtean adostutako metodologian oinarritu da aurrekontu-proiektuarekin lotuta egin behar duen nahitaezko txostenaren izapidetze-prozesuari dagokionez, aurten ezin izan baita horrelakorik egin hauteskunde-aldia dela eta.

Izan ere, udalerriko partaidetza-organoek (elkarguneek, auzoguneek, merkataritza-, turismo- eta industria-mahaiek, eskola-kontseiluak...) zenbait saio egiten dituzte, urtero, kolektiboek eta herritarrek gai-eremu eta auzo desberdinen inguruan zein lehentasun eta premia dituzten jakiteko. Gero, Gizarte Kontseiluaren txosten bidez, horiek Udalbatzara eramaten dira, Udal Taldeak hurrengo urterako aurrekontu-proiektua prestatu **aurretik**.

Horren ondoren, aurrekontu-proiektua aurkeztean, Gizarte Kontseiluak bere nahitaezko txostena egiten du, eta partaidetza-organoek planteatutako premiak eta lehentasunak txertatuko diren ala ez, eta horiek zein neurritan txertatuko diren baloratzen du.

Aurrekontu-proiektuaren inguruan eskaintzen den informazioa

Azken urteetan aurrerapauso bat eman da aurrekontu-proiektuaren inguruan eskaintzen den informazioari dagokionez eta hura emateko moduari dagokionez, baina oraindik ere hobetzeko asko dagoela uste dugu. Zentzu horretan, honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Aurrekontu-proiektuari buruzko informazioa —aurreko urteko partidekin alderatuta— argiago eta sinpleagoa izan dadila.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

UDALERRIKO GIZARTE KONTSEILUA

CONSEJO SOCIAL DEL MUNICIPIO

- Partida orokor batzuk ekintzetan gehiago banakatu eta xehatu daitezela, horiek egiaz zertarako erabiliko diren jakiteko.
- Webgunean jartzen den aurrekontu-proiektuari buruzko informazioa eta kolektiboei eta herritarrei helarazten zaien informazioa hura hobeto ulertzeko moduko baliabideekin artikulatzea, hala nola bideoak, grafikoak eta marrazkiak erabiliz.
- Hiriko auzoetan egitea aurreikusten diren inbertsioei buruzko informazioa lantzea.
- Aurrekontu-proiektuari buruzko informazio hori guztia lehenago bidaltzea gaiari buruzko eztabaidetan parte hartzea nahi dugun kolektiboei eta herritarrei.
- Aurrekontuarekin lotutako premiak eta lehentasunak planteatu edo haren inguruan eztabaidatu ahal izateko saioen deialdiak hobeto jakinaraztea, pertsona gehiagorengana iristeko helburuarekin.
- Elkarguneari edo auzogune bakoitzari haren esparruari edo gaiari dagokion aurrekontuaren informazioa helaraztea, baita informazio hori udal-sail desberdinetatik badator ere.

Saioen dinamika

Gizarte Kontseiluak positiboki baloratzen du Gobernu Taldeko zinegotziek eta kasuan kasuko sailtako teknikariek partaidetza-organoen aurrekontuei buruzko eztabaida-saioetan parte hartu izana, baita oposizioko taldeetako zinegotzien presentzia ere.

Oso garrantzitsutzat jotzen da saio hauetarako dinamika eta metodologia bat planifikatzea, kasu honetan egin den moduan, hala, bertarazten diren pertsona guztien partaidetza eta denboraren erabilera egokia bermatuko baita ondorioak eta lehentasunak prestatzeko orduan. Dena den, bestelako hobekuntzak txertatu ahal izango dira, saio bakoitzean egindako ebaluazioaren arabera.



2. 2020KO AURREKONTU-PROPOSAMENA

Jarraian, eta elkarguneetan egin diren saioetatik eta auzoguneen bilera bateratutik ateratako ondorioak oinarritzat hartuta, Gizarte Kontseiluak 2020ko aurrekontu-proiektuarekin lotuta egin dituen proposamen lehenetsiak zehazten dira, gaien eta auzoen arabera antolatuta.

BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUNA

1. Eskolako nahiz etxeko segregazioari aurre egiteko estrategiak.

GARAPENERAKO LANKIDETZA

1. 2020an, Garapenerako Lankidetzara gutxienez udal-aurrekontu osoaren % 0,7 bideratzea, konpromisoa udal-aurrekontu finkatuaren % 1 bideratzea dela ahaztu gabe.
2. Garapen Jasangarrirako Helburuak. Gizarte-eraldaketarako informazio-, komunikazio-, sentsibilizazio- eta hezkuntza-ekintzak garatzea, aurrekontuetan argi eta garbi islatuz. Aurrekontuetan gizarte-eraldaketarako hezkuntzarekin lotuta dauden garapen jasangarrirako helburuak (atxiki aurrekontu bat), herritarrek eta gizarte-elkarteek sustatuta.
3. Ekintza zehatzak edo azterketa diagnostikoak garatzea, udal-politikek bidezko merkataritzaren edo kontsumo arduratsuaren gisako gaietan zer nolako koherentzia duten ebaluatzeko. Gizarte-aurrekontuetan murrizketarik egon ez dadila eskatzea.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

KULTURA

1. Eragile kulturelek kudeatzen dituzten jardueretara bideratutako dirulaguntzak areagotzea.
2. Artisten egoitza-programa ikastetxeetan.
3. Publiko berriak sustatzeko partida ekonomiko zehatz bat sortzea.

EUSKARA

1. Sail honen aurrekontua handitzea. Batetik, euskara sustatzera bideratzen den kantitatea oso txikia da udal-aurrekontu osoarekin alderatuta. Eta, bestetik, euskara zeharkako lerro bat izanik, sail guztien aurrekontuetan egon beharko litzateke islatuta, eta gaur egun ez da hori gertatzen.
2. Gainera, aurrekontuek eta bertan jasotzen diren hitzarmen gehienek ez dute aldaketarik izan azken urteetan, udal-gobernuak aldatu arren. Kasu batzuetan mantendu egin da aurrekontua, lanak gora egin arren.
3. Parte-hartze handia dago esparru honetan. Hori argi eta garbi islatzen da euskararen asteko programazioaren ekimenean eta parte-hartzean. Horrek aurrekontu handiagoa behar du.
4. Euskaltegien hitzarmenek igoera bat izan dezatela, bizitzaren kostuak gora egin duen hein berean.
5. Euskaraldira bideratutako aurrekontua handitzea.

BERDINTASUNA

1. SORGINENAra xedaturiko partida handitzea, aurrekontua ez baita nahikoa lehentasunezko proiektu estrategiko hau garatu ahal izateko.
2. LGTBI Behatokira xedaturiko partida handitzea, aurrekontua ez baita nahikoa lehentasunezko proiektu estrategiko hau garatu ahal izateko.
3. Diskriminazio anizkoitzaren inguruko lana sendotzea.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

4. Jai-eredu heteropatriarkalaren azterketa edo diagnostiko bat egitea.

HAURRAK ETA NERABEAK

1. Emakumeen aurkako tratu txarren eta indarkeriaren sentsibilizazio-kanpainak.
2. Maskoten eguna.
3. Nerabeentzako elkarguneak eta nerabeei egokitutako parkeak sortzea.
4. Arrazismoaren aurkako ekintzak eta mezuak.

GAZTERIA

1. Gazte baztertuenen prestakuntza, kualifikazioa eta laneratzea.
2. Dirulaguntza-deialdiaren aurrekontua handitzea.
3. Indarkeria matxistari aurrea hartzeko ekintzak.
4. Gazteei etxebizitza bat eskuratzen laguntzeko ekintzak.

INGURUMENA

1. Informazio-, sentsibilizazio- eta herritarren lankidetzeta-programak berdeguneak, hiri-baratzeak, zuhaiztiak eta abar kudeatzen direnean.
2. Etxeko zaborrak ondo kudeatzeari buruzko kontzientziazio-kanpaina.
3. Tokiko 2030 Agenda.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

MUGIKORTASUN JASANGARRIA

1. Bidegorrien sarea handitzeko inbertsio gehiago.
2. Taxien elektrifikaziorako laguntzak.
3. Industrialdeetara doazen ibilbideak sortzea, azken miliako garraioaren kontzeptua aurreikusiz, baita patinete elektrikoentzako ibilbideak ere.
4. Eskola-umeen mugikortasun autonomia eta segurua bermatzeko azpiegitura berriak sortzea.

ADINEKOAK

1. Adineko pertsonen bakardadea saihesteko programak ezartzea.
2. Larrialdi-egoeretan etxez etxeko zerbitzua gaitzea, baita atsedean hartzeko egoitza-zerbitzuekin lotutako prestazio ekonomikoak ere.
3. Berpizkundearen eguneko arreta-zentrorra bideratutako aurrekontua handitzea, demenzia duten pertsoneri goizez eta arratsaldean arreta eskaini ahal izateko.
4. Adineko pertsonen aurkako indarkeriari, eta batik bat genero-indarkeriari, aurrea hartzeko programa bat ezartzea.

ANIMALIEN BABESA ETA DEFENTSA

1. Animaliak Babesteko Zentroan lanaldi osoko albaitari bat gaitzea.
2. Kaleko katuen koloniak kudeatzeko hitzarmena 30.000 €-ra igotzea.
3. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak adoptatzeko kanpaina bat egitea.



OSASUNA ETA KONTSUMOA

1. Hirugarren sektorearen jasangarritasuna lortzea, hitzarmenetan eta dirulaguntzetan eguneratu gabeko soldata-igoerek eragindako defizita estaliz.
2. Osasun-hezkuntza / Elikadura-higienea: mito faltsuak, fake news eta jarduera fisikoa.
3. Osasun mentalaren esparruan sortzen ari diren premia berriei arreta eskaintzea: depresioa/suizidioa eta detekzio goiztiarra.

AUZOAK-AUZOGUNEAK

HIRIAN:

1. TUVISA-BEI garraio publikoaren hobekuntza.
2. Aldirietako aparkalekuen proiektua.
3. Bizikletak aparkatzeko lonjen sarea.
4. Jolastokiak eremu publiko komunitario bihurtzeko proiektua.
5. Industria Berdearen proiektu bat egitea.
6. Eratzun Berdea ixtea eta hura hedatzeko aukerak aztertzea.
7. 25 milioietako partida auzoen artean orekatzea.
8. Bizilagun-elkarteetara bideratutako dirulaguntzak 200.000 €-ra igotzea.

AUZOAK:

1. LAKUA-ARRIAGA: Autokarabanen aparkalekuak auzoan bertan eragin duen espazio-galera berreskuratzea, beste aparkaleku bat gaituz.
2. ERDI AROKO HIRIGUNEA: Etxebizitzak birgaitzeko laguntzen premiazko programa.
3. ZABALGUNEA
 - a. Gaueko Aisialdirako Jarduketa Plana hiriko gune honetara hedatzea.
 - b. Auzoa gazteagotzeko plan bat egitea.
4. ABETXUKO: Enparantza Nagusia estaltzea.
5. ZARAMAGA: Odon de Apraiz ikastetxeko jolastokia birmoldatzeko prozesu pilotu bat babestea.
6. ARETXABALETA: Hiri-garraioa hobetzea.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

7. ZARAMAGA-ARANBIZKARRA: Legutianoko Atearen jarduketa integrala.
8. ADURTZA: Iturritxu kalea lurperatzeko azterketa.
9. ARIZNABARRA: Oztopo arkitektonikoak kentzea.

AUDITORIOAREN PROIEKTUA

Azkenik, Udal Taldeak planteatzen duen Auditorioaren proiektu berria jorratu zen hainbat elkargunetan eta auzoguneen bilera bateratuan. Horregatik, Gizarte Kontseiluak honako hausnarketa hau egitea erabaki du:

Ezinbestekotzat jotzen dugu, Auditorioaren Proiektua egin aurretik, alde aurretiko hausnarketa-prozesua bat egitea. Izan ere, proiektu horrek esanahi handia izango du udaleko diru-kutxarentzat, eta Kultura arloko aurrekontu baxuak hipotekatuko ditu, epe ertainera eta luzera.

Proposamena:

1. Proiektua Kultura Elkargunera eta Gizarte Kontseilu honetara eramatea.
2. Gaur egungo premiak oinarritzat hartuta, Ekonomia Kultural Jasangarriaren Proiektu bat egitea, lehenik eta behin, lehendik dauden azpiegiturak konponduz: Antzokia eta udal antzoki-sarea, nahiko egoera txarrean baitaude.
3. Hausnarketa-prozesu bat abian jartzea, edukia kontuan hartuta (Zertarako? Nola?) eta ez adreilua, eta Auditorioa Eusko Jaurilaritza eta Innobasque martxan jartzen ari diren Kulturaren eta Sormenaren Euskal Distritu berriarekin lotuz. Sektore hau garatzeko aukera bat planteatuz, eta ez musika-emanaldietarako gune hutsal bat bezala.
4. XXI. mendeko agerleku bat eraikitzea, balioanizduna, bilakagarria eta kutxa eszenikoa izango duena. Aparkalekuak ere izango lituzke, eta hiriko mugikortasun-sistemeekin lotuta egongo litzateke.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Azkenik, Gizarte Kontseiluak eskerrak eman nahi dizkie, beren balorazioen eta proposamenen bitartez, txosten hau egiten lagundu duten pertsona guztiei. Gainera, gure udalerrriaren diru-sarrerei eta aurrekontuei buruzko hurrengo eztabaidetan aktiboki parte hartzera animatzen ditugu Gasteizko herritarrak, denon artean eraiki nahi dugun hiri-eredua zehazteko baliagarriak izango direlakoan.

Stua.: Saioa Sánchez
Gizarte Kontseiluko ordezkaria

OHARRA:

Gertakariak:

- Bertan behera geratu da Bizikidetza eta Aniztasunaren Elkargunea, elkarte bat bakarrik bertaratu delako (txostenean jasotzen diren proposamenak lehengo urtekoak dira).
- Gaden elkarteak bilera utzi zuen, zinegotziak eta Elkarguneak adostutako aurrekontu-partida bat ezabatu egin zelako; hura aurreko legegintzaldiko aurrekontuetan txertatuta zegoen, baina ezin izan zen gauzatu aurrekontuen luzapenean. Gainera, ez zegoen ados planteatutako dinamikarekin.